

Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore Igorren izango dira zezeilaren 28an

Zezeilaren 28an, *Zerua lapurtu dutel!* ikuskizunaren saio bi egingo dira Lasarte Aretoan, 16:30ean eta 18:30ean. Astronomia, argi kutsadurea, pantailen erabilera eta naturaren zaintzealango gaiak jorratuten dauz ikuskizunak. Pailazoen Katxiporreta kooperatibeak eta Aranzadi Zientzia Elkartek alkarlanean landu dabe ume eta familientzako zuzendutako lan hau. **14. orrialdea**



"Ez gabiz ezer oparitutarik eskatuten, aukera bat eskatuten gabiz"

Agarre auzoan hamar bat persona bakarrik geratuten dira eta BEGITU bertara hurreratu da, Nerea Markina eta Antonio Pisa auzokideakaz berba egitera. Salatu dabe, Lemoako Udalak iragarritako bigarren plan integrala ez dala danontzako heldu eta prest egongo zirala bertan gelditu eta alkiler justu bat ordainduteko. Horrezaz gainera, adierazo dabe sute-arriskua sortua izan dala: "Argiaren kontua da arazoa, argia ebagiaz udaletxeakoak eragin dabe leku seguru bat ez izatea". **11. eta 12. orrialdeak**



BEDIA

Bediako estazinoa barriztauta

Euskal Trenbide Sareak 2,9 milioi euroko inbersinoa egin ostean, antxinako geralekua "instalazio moderno eta irisgarria" bihurtu da. Gainera, 2.150 metro karratu eta 43 plazako aparkalekua dago oin mobikortasun urriko personentzako plaza bigaz. **5. orrialdea**

AREATZA, BEDIA

Areatza eta Bediako aurrekontuak onartu ditue

Areatza eta Bediako aurrekontuak onartuta, zarratuta dagoz gure eremuko udal aurrekontu guztiak. Areatzan 1.938.765,57 euro ku-deatuko dira aurtan eta Bedian, 1.890.958,76 euro; ia % 20a, taberna-denda bat egiteko. **5. eta 7. orrialdeak**

ARRATIA

Dimoztar bi ardi moztailen mundialean



Martia hasikeran jokatu da Golden Shears munduko ardi moztaille txapelketea Zeelanda Barrian eta lehenengoz, bertan egongo da Euskal Selekzioa, beste 27 selekzinoren kontra. Tartean, Mikel Etxebarria eta Janire Artabe dimoztarrek hartuko dabe parte. **14. orrialdea**

Giro lasala eta atsegina tabernan
Tragoak, musika ona eta zuzeneko kontzertuak!
Bariku eta zapatuetan, 20:00etatik 23:00etara lagunartean jateko errazioak.

Jantokiko proposamena
Jantoki atsegina, giro lasaia, betiko platerak, ogitartekoak, hanburgesak eta errazioak eskaintzen ditugu egunero, 13:30etik 15:30era eta bariku eta zapatuetan 20:00etatik 23:00etara.

MEGUKO ORDUTEGIA
Astelehena: 08:30 - 23:00
Martitzena eta eguaztena: ITXITA
Eguena: 08:30 - 23:00
Barikua: 08:30 - 02:00
Zapatua: 11:00 - 02:00
Domeka: 11:00 - 23:00

Bartolome Deunaren kalea, 4 Areatza
691 263 063 (Mayra) - 659 922 469 (Karmele)
aldamin.jatetxea.areatza@gmail.com
[@aldamin.jatetxea](https://www.instagram.com/aldamin.jatetxea)

Literatura txokoa

MAURIZIA. BIZIMINAREN HOTSA

Gauza txikien epikaz. Sarritan gure inguruan, taula gainean ala pantailetan, dala liburu ala komikietan, ohitu gara errege erreginen, superheroien eta itzelezko poderea daukien pertsonaien desfileetara. Gaurkoan txikitasunaren aldarria egiten dauan komikizarra dakargu. *Maurizia. Biziminaren hotsa.* Maurizia Aldeiturriagaren bizitza eta ekinbideak batzean dira 56 orrialdeotan. Labur baina sendo, gerra garaitik lehen diskoa grabatzerainoko bidezidorrak. Xumetasuna ardatz. Garbiñe Ubedak idatzia eta "Garluk"-ek marraztua, lehenaldiari gorazarre oraina presente eukita. Egileek dinoenez bizitza xumea euki eban Mauriziak, eta horrexegatik bihurtu zan ezinbesteko errefe-

rentzia, naturaltasunaren adibide eta euskal kulturearen ikono. Haren doinuek erraietan egiten dabe dardara, lurrari lotua dago haren ahotsa, sua besteko gobernaezin. Istorioa, ala hobeto esan historia, minetik abiatuten da. Gerrearen atzaparretatik iges egiten. Igesa beti da lazgarri, eta berau baretzeko kantua da aingura Maurizientzat. Euren belaunaldiari ez eutsien musika joten itxi, alper eta susterbakoen kontuak ziralakoan. Baina zelan izango da ba gauza ezdeusa! Mauriziarri senar izango zan Benantzio Bernaola, "Karakol", aurkitzeko balio izan eutsan lehenengo, eta gero haregaz batera, bizipoza barreiatuteko plazarik plaza. Ederto

baten azaltzen da kontakizunean alkarrenganako maitasuna, eta aldizka, errekurso dotore besteko praktikoa dan errealismo magikoa erabiliz, pertsonaien barne bizitzaren ertzak irudikatuten jakuz. Porrusaldea eta jota darie koloreztatuko paperei eta bizitzaren aldarri dan ahotsa dakarskue. Eta oin bai, gauza txikien zale guztiok dakizuenetz, gurea da epikaren garaipena. Oles egin eta gero, hau da despedidea...

@*fantomastxiki*



Gidoia: Garbiñe Ubeda; marrazkiak: Ekaitz Agirre "Garluk"

Maurizia. Biziminaren hotsa

Euskal Herriko Trikitixa Elkar-tea eta Ikastolen Elkartea, 2025

56 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zezeilaren 16tik 22ra

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya (14-20). Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 23tik martiaren 1era

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Melero (21-27). Amorebieta-Etxano.

Martiaren 2tik 8ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa (28-6). Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.
Tel.: 94 449 05 87

Medikuak

Arantzazu, Artea, Areatza, Dima,

Igorre eta Zeanuri: 94 600 74 63

Bedia eta Lemoa: 94 600 68 85

Ubide: 945 45 50 17

Zeberio: 94 500 67 95

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17

mankomunitatea@arratia.eus

Gorbeialde Landa

Garapenerako Elkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Gertu bulegoa Igorre 94 406 80 00

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51

kulturetxea@igorre.net

Lemoako Kotxepin Kultur Etxea

kotxepin@lemoa.eus

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notariotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa 688 854 543

info@errota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik

21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara

orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era

orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro.

Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-

Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara

orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-

Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera:

06:45etik 20:45era bi orduik behin.

Ubidetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik

20:45era bi orduik behin. Jaiegunetan: 08:45etik

20:45era bi orduik behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran

zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara

orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzunik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta

08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan

ez dago zerbitzunik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00,

16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan:

07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30,

16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan:

07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

A3712 linea. Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: 06:45ean eta 08:45ean urteten

dau Bilbotik. Zapatuetan: 08:45ean urteten dau.

Jaiegunetan: 10:30ean urteten dau.

A3712 linea. Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: 15:15ean eta 16:15ean urteten dau

Gasteizetik. Zapatuetan: 16:30ean urteten dau.

Jaiegunetan: 16:30ean urteten dau.

Eskualdeko garraioa. Erreserbak

945 18 20 60

6A linea. Otxandio-Legutio

Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean,

09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean

eta 20:25ean. Astegoen eta jaiegunetan:

08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an.

6A linea. Legutio-Otxandio

Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean,

14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta

21:15ean. Astegoen eta jaiegunetan: 10:35ean,

13:40an, 18:25ean eta 21:30ean.

Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Webgunea:** *www.begitu.eus*. **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** *inigoirua@begitu.eus*. **Erredakzino burua:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** *asierabrisketa@begitu.eus*. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Ager Barragan. **Webgunearen arduraduna:** Ager Barragan. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresea (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Ibai Zarrabeitia (Arantzazu, Areatza eta Artea) Alejandro Konadio (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria, **Instagram:** @begitu.eus, **Mastodon:** @begitu, **X:** @BegituEus **YouTube:** @BegituAldizkaria



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkarteenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura daua-na adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnar-ketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hau-xe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko hone-tara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

ALKARREGAZ

Mazala Andra Taldea

Zeanuriko Andra Taldea gara, 2005ean herrian egozan gabeziak ikusita taldea sortzeari ekin geuntsan. Ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatu eta ahiztatasuna, konfiantzea eta alkarbabesa eregiteko asmoagaz jaio ginan. 20 urte honeetan Zeanuriko zein Arratiako andren arteko hartu-emonak eta alkarlana bultzatu doguz, andron kontrako indarkeria matxistearen aurrean prebentzinoa landu dogu. Gure usteak ozen eta irmo adierazo doguz aldarrikapen egunetan hainbat ekintza desbardin antolatuta, eta urtean zehar ikastaroak eta berbaldiak antolatuten doguz sensibilizazinoa eta bisibilizetako denpora luzez andrak izan doguzan gabeziak eta sufritutako biolentziak. Arratiako Mugimendu Feministako partaide moduan, feminismoa eta gure bizitzak erdigunean ipini doguz, gizarte parekide eta hobeago bat eregi guran. Gutaz informazino gehiago gura izan ezker mazalaandrataldea@gmail.com helbidera idatzi zeinke.

ERETXIA

Kiñu Gaztetxea: Bai? Zergaitik?

Bizitea egokitu jakun gizar-tea oso konplejua da. "Mundu hobe baten alde" etenbarik bizitea eta bu-rrukatutea, oso gizatiarra iza-teaz gainera, oso nekatua da. Nahiz eta jakin sistema kapita-lista nagusia bidebakokerien, desbardintasunen, herrien eta planetearen suntsipenaren eta abarren kausa dala, analisi-maila horretan zentroteak batzutan deskonektau egiten gaitu. Trumpek, Elon Munskek, Bezosek eta beste hainbatek etxe komunerako Frantzisko Aita Santuak esango leukeena diseinetan dabena, gainditzea ezinezkoa balitz bezala. Baina hurbilen daukagun gizartera jaistean, besteen pentsakereak eta jarrereak be desmoralize-tan gaitu, gure planteamen-tuakaz eta gure kezkakaz bat ez datozen biztanleria-sektore desbardinena; nire kasuan: futbolaren jarraipena, El Co-rreo Arratian gehien saltzean dan egunkari gisa, gure he-rrietako jaiak meza nagusiagaz titulatzan dabezan santuak, Gorbeiaiko kurutze ikutuezina, eta abar. Badirudi oindino men-deetako aurrerapen soziala be-harko dogula kontzientzia ge-hienak alda daitezcan, nire ustez egin beharko leukien moduan, noski.

Eta, halanda guztiz be, gizar-teak beti aldatu diran sekto-reak, erresistenteak, iraultzai-leak esan leiteke, errepikatzen jarraituten dabe, gitxiengoa bai, baina alaiak eta burrukala-riak, gizarte-sareen estutasuna eta zapalkuntzea gorabehera. Arratiako gaztetxeen kasua da hori, Kiñuren kasua, adibidez. Definidu beharko leiteke zer dan Kiñu gaztetxe gisa: topale-ku aktiboa; batzar horizontala gaztetxea bultzatzen dabene gazteen adierazpen gisa; kultur etxe alternatiboa atzen urteo-tan bizitako ehunka jarduer-a-rako; herri-okupazinoa milioi



BERNA GOMEZ EDESA
Militante ekosoziala

Arratiako indar "bizi" guztiek ba-bestutako balio soziala izan beharko leuke Kiñuk. Kultura, kirol, feminista, pensinodun, sindikatu eta abarren alkar-teengandik, holan gizar-tea biziteko modu demokratiko eta parte-hartzailea defendiduko dalako

askoko jaubetza pribaduaren aurrean (Banco Sabadell); belaunaldi-alternatiba euren gaztaroa biziteko modu komu-nitarioagoa interesatzen jakien nerabe-gazte barrientzat. Baina jenteak, Kiñu aktibetan dabene gazteek, energia guztia lgorre bat, Arratia bat, Euskal Herri bat, mundu hobe bat egi-teko balio eta jarduera konpro-metiduak bultzatzera bideratu beharrean, etenbarik ibili behar dira beren indarraren zati bat jaubeak (bankuak) lokala hartu eta zarratutetik defendiduteko. Arratiako indar "bizi" guztiek babestutako balio soziala izan beharko leuke Kiñuk. Kultura, kirol, feminista, pensinodun, sindikatu eta abarren alkar-teengandik, holan gizar-tea bi-ziteko modu demokratiko eta parte-hartzailea defendiduko dalako. Ez gazteenganako zentzu paternalista, baizik eta eskubide sozial kolektibo gisa, batez be faxismoak munduan aurrera egiten dauan garai ho-neetan, eta hemen. Kiñuk balio garrantzitsua izan beharko leuke Udalarentzako eta mankomunidadearentzako eta horreei eusten deutsien zinegotzi, alkate eta alderdi politikoentzako be, indibidua-lismoaren eta "pasotismo" so-zialaren aurrean, autogestinoa eta jarduera komunitarioa sal-bazino soziala diralako. Batzuetan, urrun harrapetan gaituan gai bateri buruz berba egiten dogunean, Kiñu kasu honetan, persona gehienek ez dogu minutu bat horretan pentsetan. Kasurik txarre-nean burua jiratzen dogu bere pankartak ikusten doguzanean gizar-teari deika. Oso garran-tzitsua liteke jarrera horreek aldatzea eta aldarrikapenagaz enpatizetan saiatutea, edo une batez behintzat, horretan pentsetea. Kiñuk etorkizuna dauka jokoan egun honeetan, Arratiak gaztetxeak dakarren balio so-zial, komunitario eta politikoa dauka jokoan.



LUMATUTEN



IDOIA EIZMENDI

Mugak apurtu

Espainiako Estaduan ezohiko erregulariza-zino-prozesu bat abia-razoko da, gaur egun egoera irregularrean dagozan milioi erdi laguneri eragin deikeena. Baina jente askoren egoera hobetuko dauan albiste on honek ezin gaitu nahastu gobernu honen migrazino-politikak ulertzeko orduan.

Espainiar Gobernuak hiru-garren herrialdeakaz mugak kontroletako eta kanpora ate-rateko akordioakaz konpro-metiduta jarraitzen dau, mi-gratzen daben personak gure mugetara heltzea eragotziz.

Helburu bera dauka Mi-grazino eta Asiloari buruzko Europako Itunak, zeinek per-sonen eskubideen eta bide seguruak eta legalak bilatzea-ren ikuspegitik planteau be-harrean, mugak kanpora ate-rateko ikuspegi sekuritarioa indartuten dauan. Itunak itsa-soan egindako erreskateak kriminalizau daikez; beroan

egindako itzulketak moduko praktikak legitimatzen dauz; asilo-eskaerak zailtzen dauz, eskatzaileentzako muga 9 hilebete arteko atxilotzea eta beren bizitzak arriskuan egon daitekezan herrialdeetara bueltetea ahalbidetuz.

Frontex, Mugen Kontro-lerako Agentzia Europearra (Espainiako Estadia horren parte da) 2004an jaio zan 6 milioiko aurrekontuagaz, hogeit urte geroago aurre-kontua 922 milioi eurokoa izan da. Bistan da, etorkinak gure mugetara heldu ez dai-tezan saiatzea oso garesti ateraten jakula. Are gehiago, hirugarren herrialdeakaz egi-ten diran akordioen ondorioz migrazino-bide batzuen era-bilera jatsi egiten da, baina horrek dakar migrazino-bide barri, luzeago eta beraz, arriskutsuagoak zabaldutea. Holan, MSH (Mediterranea Saving Humans) erakunde italiarraren arabera, joan dan urtailean bakarrik 1.000 lagun inguru desagertu dira Medi-terraneeo itsasoan.

Migrazinoari eustea ezi-nezkoa da eta mugen aboli-zinoa ez da utopia bat, beha-rrezkoa da.

ZERTZEAN



ANE LEKUE

43. gela

43.a ilunetan egoten da, ni sartu eta pertsianak igo arte. Eguzkiaren onurez hitz egiten diot: kaltzio eta fosforoa xurgatzen dutela gure hezurrek, serotoninina eta melatonina orekatzen dituela umorean eraginez... egunero mantra berdina nik. Erantzuna berak? Purrustada.

Gosaria erretiluan kokatu, komunera joateko tentetzen lagundu, ea deskantsatzen duen galdetu eta nola ez, purrustada. Bere eguneko bigarrena. Ez nirea baina.

Istripuz bi begiak galduta, besteen mundua ere ilunpetan nahi du. Badakit doluaren parte dela ernegua, baina pazientzia gutxi geratzen zait lanaldiko bederatzigarren ordurako.

Argitasuna behar duela logelan eta eguzki izpiak azalean, nik.

Purrustada berak.

43.etik hasperenka atera eta 44.era...

* AEK-k antolatutako IV. Mikroipuin Txapelketako irabazlea da 43. gela ipuina.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera erduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezkeru, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@begitu.eus helbidean.

BEGI TXINDORRA

Hilaren atzen gauean, zezeilaren 28an, ikuskizun berezia ikusi ahal izango dogu gure buruen gainetik. Ilundu eta jarraian, gitxi gorabehera 20:00etan izango da zerura begiratu eta sei planeta eta ilargi ia betearen desfileaz gozatzeko momenturik onena, hori bai, lainoek ixten badeuskue. % 90ean beteta egongo dan ilargia topau eta honen eskoiko aldean, arku leun bat irudikatuko dabe hurrengo hurrengo Jupiter, Urano, Saturno, Neptuno, Merkurio eta Artizarrak, atzen laurak zeruertzean pilatuta. Zeru garbi eta argi kutsadura gitxiko leku bat topau ezkeru, begi bistaz ikusiko dira danak. Urano eta Neptuno ikusteko baina, teleskopio baten faltan, nahikoa izango da binokurralakaz.

Zeruan diz-diz dabizan milioika izarrengandik desbardinduteko, distiran erreparau behar da, izarrek diz-diz egiten dabe eta planetek isladatuten daben argia barriz, finkoa da. Bestela, eta izar eta bestelango astro eta galaxiak be identifiketako, badagoz Stellarium eta Sky Tonight moduko mobikorrerako aplikazino interesgarriak.



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
hagin klinikak

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bidaia
T. 94 631 50 39
Idazgela Zerbaita: 900
R.P.S. 31/06



BEDIA

1,9 milioiko aurrekontua onartu dau Bediako Udalak

Aurrekontuaren % 20a taberna-denda bat eregiteko erabiliko da, datorren urtean zabalduko dana.



2027an zabalduko da Jandoniz kaleko lokalean eregiko dan taberna-dendea.

Asier Abrisketa

EAJk osotutako Bediako Udal Gobernuak zezeilaren 3ko Osoko Batzarrera eroan eban 1.890.958,76 euroko aurrekontu proposamena eta EH Bilduko hiru zinegotzien abstentzinoagaz, aurrera egin dau proiektuak. Pasau dan urteko aurrekontuagaz alderatuta, % 8tik gorako igoerea egon da 2026ko Udal Aurrekontuan. Igoera hau egingo diran inbersino garrantzitsuenetan islatu da. Garrantzitsuena, Jandoniz kaleko etxebizitzaren beheko lokalean egingo dan taberna-dendea izango da, 371.500 euro inbertiduko dira eta hau zabalduko da 2027an espero dala aurreratu dau BEGITU Aitor Sorriketa alkateak.

Gainontzeko inbersino gehienak pasau dan urtean hasitako proiektuakaz dagoz lotuta. Holan, plazako jolasgunea egiteko 81.000 euro, eraginkortasun energetikorako 60.500 euro -pelotalekuko instalazino fotovoltaikoa egiteko- eta HA-POa bideratuteko 26.000 euro inbertiduko dira. Beste alde batetik, estazino barrirako sarbideak hobetuteko proiektua

idazteko 25.000 euro eta gimnasiorako makinen erosketarako 65.000 euro be erabiliko dira. Kultur eta arlo sozialetarako partida gehienak barriz, bere horretan gelditu dira: herriko jaietarako 39.000 euro, Bardintasunerako 20.000 euro, kultur jarduerentzako 41.000 euro, udaleku eta Txiki-txokorako 35.000 euro eta ikastarotarako 21.000 euro. Gazteriarako partidea barriz bajatu egin da, 31.000 euroraino.

EH Bilduren abstentzinoa

Bediako EH Bildu abstenidu egin zan aurrekontuak onartuterako orduan. Jose Luis Intxausti zinegotziak BEGITU azaldu dauanez, honetarako exzrrazoia euren ildoak mahai-gainean ipinteko aukera gitxi dabezala izan zan: “Gehiengo absolutua daukienez -EAJk- ez dogu indar askorik galdu gura kontrako proposamenik egiten”. Onartu dabe informazino batzordeetan puntu guztiak eztabaidatuteko aukerea dagoala eta “oso gitxitan”, EH Bilduren proposamenak kontuan hartzean dirala, baina: “Normalean eurek dakarrena datorren moduan doa Osoko Bilkurara”.



BEDIA

Badago martxan Bediako Euskotren estazino barria

Ia 3 milioi euroko inbersinoagaz, "instalazino moderno eta irisgarria" eta 43 plazako aparkalekua egin da.



Asier Abrisketa

Urtilaren 26an zabaldu zan Bediako Euskotreneko geltoki barria, urte bateko obra eta 2,9 milioi euroko inbersino egin ostean. Antxinako geralekua geltoki bihurtuteko lanak Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Jasangarrirako Saileko Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoak egin ditu, 2024ko bagilean obrak lizitau ostean. Urtilaren 23an egin eben geltoki barriaren aurkezpena Aitor Sorriketa alkateak eta lanetan parte hartu daben erakundeetako buruek. Bertan defendidu eben, Bediako antxinako geraleku zaharragaz alderatuta, “instalazino moderno eta irisgarri” barriak, “segurtasun eta erosotasun handiagoa” ekarriko dauala.

Segurtasunaren aldera, garrantzitsuena nasen arteko pasagune zaharra kendu -trenbidetik pasetan zana- eta oinezkoentzako pasabide baten instalazinoa da, oingoan, trenbidearen gainetik. Irigaristasuna

bermatuteko, pasabidearen aldeetako baxotxean igogailu bana be ipini da. Bidaia-erregitako eraikin barriak 110 metro karratuko azalerea dauka, hiru eremutan antolatuta. Atondo nagusi bat dauka eta alde bietako baxotxean, gela bana. Bata egonaldi-erako eta bestea, terminaleko instalazino-erako. Horrezaz gainera, txartelak saldu eta kargetako makina barriak ipini dira.

Aparkaleku barria

Geltokiko instalazinoez gainera, estazinoaren bizitza barrian pisu handia izango dau aparkalekuak. Izan be, berbarako Arratitatiek tren hartzera Lemoara hurbilduten dan jentea, aparketako lekuri ez daukanean Bediara joan ahal izango da oindik aurrera. 2.150 metro karratutan, 43 plazako aparkalekua eregi da. Tartean, ibilgailu elektrikoak kargetako eta mobikortasun urriko personentzako bina plaza daukaz. Bai eta bizikleta arruntak zein elektrikoak aparketako gunea.



DIMA

Ama Hizkuntzen Nazinoarteko Eguna ospatuko da Diman

Herrian bizi diran atzerritarren ahotik hamar bat hizkuntza entzun eta danok batera meriendea egiteko ekitaldia antolatu da.

Asier Abrisketa

Dimako Udalak Euskal Herria eta Espainiako Estadutik kanpo jaiotakoen errolda egin eban eta atzerritarren diran 50 bizilagunetik gora dagozala topau eben. Horetan lau herrialdeetatik etorritako jentea bizi da herrian: Alemania, Austria, Errumania, Errusia, Eslovakia, Frantzia, Italia, Portugal, Txekia, Argentina, Bolivia, Brasil, Guatemala, Kolonia, Nikaragua, Txile, Venezuela, India, Amerikako Estatu Batuak, Argelia, Ekuatore Ginea, Ginea, Maroko eta Senegal. Udalak ez eban hainbesteko nazinoarteko aberastasunik espero eta honek betiko dimoztarraz batzeako zezer egin behar zalakoan antolatu dabe Ama

Hizkuntzen Nazinoarteko Eguneko ekitaldia, zezeilaren 20rako. Holan, Diman bizi diran atzerritarraz kontaktuan ipini dira Udaletik eta ados egon diranakaz, ekimen interesgarri bat antolatu da. Baxotzak, norbere hizkuntzan testu bat idazteko eskatu jakie; poema bat, ipuin bat, erre-zeta bat... Honek euskerara eta gaztelarrera itzuli dira eta hilaren

20ko ekitaldian, hiru hizkuntzetan irakurriko dira: jatorrizkoan, euskeraz eta gaztelaraz. Udaletik BEGITU aurreratu dabenez, momentuz hamar bat dira entzungo diran hizkuntzak: portugesa, sloveniera, faloa, arabiera, italierea, frantseza, alemaniera, hasaniera... Ekitalditxoaren ostean, meriendea egingo da bertaratuak alkar hobeto ezetuteko helburuagaz.



ARRATIA, ZEBERIO

AREATZA

Areatza, Dima, Zeanuri eta Zeberioko mendi publikoetan abeltzaintza sustatuteko plana martxan

"Artzaintza tradizionala berreskuratu eta kudeaketea hobetzeko" esku-hartzeak baloretan dabiz Gorbeialde, Udalak, BFA eta abeltzain alkarteak.

Asier Abrisketa

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gorbeialde Landa Garapenerako Alkarteak, udal eta abeltzain alkarteakaz batera, Arratia-Nerbioiko Herri-Basoe-tan Negubasoak Garatzeko Proiektua ipini dabe martxan. Programa honen bitartez, mendi publikoetan arbolapeak garbitu, adarrak kendu, landare-hondarrak birrindu eta hesiak ipinteko esku-hartzeak egingo dira. Gorbeialdetik BEGITU aurreratu dabenez, proiektua herri bakotxeko esku-hartzeak berbatuteko fasean dago baina BFAk aurreikusitako aurrekontua, 202.387,02 eurokoa da.

Helburua basolarraketea garatutea da, izan be, eredu estentsibo honek "biodibersidadea manteniduten, sute-arriskua murriztuten, larreak birsortzen eta lurzorua- ren karbonoa finkatuteko gaitasuna handituten" laguntzen dau. "Abeltzaintza modalidade hau klima-aldaketa arintzeko tresna garrantzitsu bihurtu- ten da", defendidu dabe Gorbeialdetik. Bide honetan, BFAk

aurreikuspen bat egin eban Areatza, Dima, Orozko, Zeberio eta Zeanuriko basoen esku-hartzeetarako, Urduñan daborduko martxan dagoan proiektuaren eredia jarraituta.

Udalerrri horreetan, mendi publiko asko dago sastraka eta baso-landaketakaz, baina ez dira asko erabilten abeltzaintzarako. Holan, "eremu horreek baso- eta abeltzaintza-erabilera mistorako berreskuratuteko", zer garbitu eta hesiak non ipini adostuten dabiz udalak eta abeltzainak, BFA eta Gorbeialdegaz. BFAren proposamena -Areatza, Dima, Zeberio eta Zeanurirako- guztira 90 hektarea garbitu, 24 hektarea birrindu eta 2.600 metro zarratutea da, batez be Dima eta Zeanurin. Aurreikuspena 202.387,02 eurokoa da guztira eta zenbateko horren barruan sartzean dira landa- lanak, materialen hornidurea, obraren koordinazioa eta zuzendaritzea, abeltzaintzako alkarteakazko koordinazioa eta Neikerrek esku-hartzeen aurretik eta ostetik egindako ebaluazioa.



Areatza Musik & Beer jaialdiak maiatzean joko daben zazpi talde iragarri ditu

Basement Saints, Hollow Souls, Bigblack Rhino, These Wicked Rivers, Beaux Gris Gris and The Apocalypse, Kris Barras eta The Bateleurs taldeak dira maiatzeko atzen astegoi- eneko bariku eta zapatuan Areatzan egongo dirala iragarri dabezanak.



Hollow Souls taldea.

Erredakzioa

Maiatzaren 29an eta 30ean ospatuko da aurtengo Areatza Musik & Beer nazinoarteko musika eta garagardao jaialdia. Bederatzigarren edizinora helduko dan hitzorduak musikea, garagardao artisaua eta gastronomia buztartuko ditu barriro, eta antolatzaileek kartela osotuko daben lau talde iragarri dabez daborduko.

Garagardaoari jagokonez, Basque Beer izango da babesle nagusia, eta Euskal Herriko hainbat marka dastatzeko aukerea egongo da. Gastronomia be protagonismo berezia eukiko dau, Kallartean gunean kokatuko diran hiru foodtruck eta janari postuakaz.

Jaialdiak gune nagusi bi izango ditu: Gudarien plazan egongo da eszenaleku nagusia, arrasti eta gaueko kontzertuakaz eta karpa handiagaz; Kallartean gunean, barriz, zapatu goiz eta eguerdiko emonaldiak egingo dira, jatekoa eta azokatxo berezi bategaz batera, igaz lehenengoz egin zan bide beretik, giro lasaiago eta familiarrean.

Horrezaz gainera, jaialdiaren atariko modura, maiatzaren 28an gastronomia eta garagardaoa buztartzeko ekimena egingo dabe barriro Garena jaltetxean, igaz arrakasta handia izan ostein.

Urteakaz eskualdeko musika zaleentzako hitzordu finkatua bihurtu dan jaialdiak laster

osotuko dauala kartela iragarri dau. Holan, maiatzaren amaiera data gorritz marketako modukoa izango da beste behin Areatzan.

Basement Saints (Suitza)
Rock klasikoaren eta southern-rock kutsuko erritmoen arteko nahasketea egiten dau Basement Saints taldeak. Gitarra riff sendoak, erritmo trinkoak eta ahots indartsua dira euren ezaugarri nagusiak, zuzenekoetan publikoagaz berehala konektatzeko gaitasun handia erakutsiz. Europako hainbat jaialditan ibilitako taldea da, eta energia handiko kontzertua eskaintzea espero da.

Bigblack Rhino (Katalunia)
Stoner eta hard-rock kutsuko proposamen astuna dakar Bigblack Rhino talde kataluniarrak. Erritmo lodiek, gitarra distorsionauk eta bateria indartsuek markatzen dabe euren soinua, eta eszenatokian intensidade handiko emonaldiakaitik dira ezagunak. Europako hainbat jaialditan ibilitako taldea da, eta Areatzara soinu bortitz eta sendoenak eroango dituan izenetako bat izango da.

The Bateleurs (Portugal)
Bluesa, folk-a eta rock alternatiboa nahasten dituan laukote portugaldarra da The Bateleurs. Bidaia-kutsu handiko soinua, erritmo aldaketak eta giro bereziak sortzeako gaitasuna dabe, eta zuzenekoetan

publikoari esperientzia berezia eskaintzea bilatzen dabe. Jaialdiaren alderdi anitzena ordezkatzuko dauan taldea izango da.

Hollow Souls (Erresuma Batua)
Blues-rock garaikidean oinarritutako laukote honek gitarra indartsuak eta ahots kementsuak buztartzen ditu. Diskoetan zein zuzenekoetan energia handia transmititzen dabe, eta Erresuma Batuko underground eszenan ospe gero eta handiagoa lortu dabe atzen urteotan. Zuzeneko trinkoa eta bizi-bizia espero da.

These Wicked Rivers (Erresuma Batua)
Blues-rock melodikoagoan eta atmosfera zainduetan oinarritzen da euren proposamena. Pasarte epikoak, crescendo emozionalak eta ahots adierazkorak buztartzen dabez, eta atzen urteotan Erresuma Batuko eszenan goraka doan taldea da. Jaialdiko kartelari izaera sendoa emongo deusan izenetako bat izango da.

Beaux Gris Gris and The Apocalypse (AEB)
Blues sakona, swamp-rock giro ilunak eta psikodelia ukituak buztartzen dituan proiektua da hau. Hegoaldeko Estatu Batuetako soinu baltz eta hipnotikoak ekarriko dabez, erritmo geldo baina intensidadez betetako pasarteakaz eta eszenatokian nortasun handia erakutsiz. Jaialdiko proposamen berezietako bat izango da.

Kris Barras - akustikoan (Erresuma Batua)
Hard-rock eszenatik datarren arren, Areatzan formatu akustikoan jardungo dau, bere alde personal eta intimistena erakutsiz. Folk ukituak, melodia zainduak eta ahots sendoa izango dira protagonista, publikoagaz hartu-emon estua sortzean daben kantuen bidez. Jaialdiko momentu bereziene- tako bat izatea aurreikusten da.

AREATZA

la milioi bira heltzean
diran aurrekontuak
onartuta

EH Bilduk osotutako Udal Gobernuak 1.938.765,57 euroko 2026rako aurrekontu proposamena egin eban urtailaren 29an eta, EH Bilduren aldeko bost boto eta EAJren kontrako lau botogaz, aurrera egin dau proiektuak.

Asier Abrisketa

Pasau dan urteko aurrekontuagaz konparauta % 3,88 igon da eta Udal Gobernuak azaldu dauanez, “gastu-erregelak aurrekontua nabarmen baldintzatu dau” eta beraz, aurreikusitako proiektu batzuk ez dira kontuetan jaso. Kanpoan geratu diran horreek garatuteko aukerak aztertuko dirala azaldu dabe BEGITUN, erremanentea erabilita.

Azpiegituren arloan, hainbat lan aurreikusi dira: auzobideak hobetuteko 40.000 euro, As-katasun kaleko konponketetarako 100.000 euro, Arragoetan aparkalekua egiteko 40.000, haur-eskolako aire egokitza-penerako 30.000 euro eta ugerlekuetako bonba eta kloratze sistemea hobetuteko 30.000 euro. Beste partida garrantzitsu batzuk, Ludoteka eta Gaztelekurako 50.000 euro eta ugerlekuko zerbitzuaren esleipenerako 65.000 euroak dira.

Beste alde batetik, Udalak III. Bardintasun Plana garatutea, lehen sektorea indartutea, kultur eskaintzearen sendotzea, euskerearen erabilerea sustatutea eta herritarrak komunikazinoa hobetutea be mamindu ditu aurrekontuetan. Uparan eta Zertu alkarteakaz, Areatzako Bandagaz, Areatza

Musik & Beer jaialdiagaz, Erro-tagaz eta ganaderuakaz be egin dira hitzarmenak “herriko gizarte-, kultura- eta ekonomia sarea indartzeko asmoz”. Arratiako Udalen Mankomunitateari egiten jakon ordainketea be igon egin da, ia % 14, BideON zerbitzua dala-ta.

EAJren ezezkoa

Josu Basozabal EAJko zinegotziak BEGITUN azaldu dauanez, “aurrekontuak ez dira ezer be ez egokituten Areatzako beharrian sozialetara”. EH Bilduk proiektu zarratu bat aurkeztu ebala dino eta Basozabalek defendidu dau, hasteko “beharrianen hausnarketea” egin beharko litzatekeala. EAJk aurrekontu “sozialago” bat gura eban. Berbarako, herritarren % 18a etorkinak dirala dino eta aurrekontuetan, kolektibo “ikusezin bat dala” eta honeek gizarteratuteko gehiago egin daitekeala, esaterako Zurrumrugen Aurkako Sareagaz bat eginaz. Billaroztarren % 20a 60 urtetik gorakoa dala be azaldu dau jeltzaleak eta honeentzako gehiago behar dala defendidu, adibidez, Egunekeo Zentro baten proiektu pilotua martxan ipinita. Kultura arloan barriz, salatu dau show-ak kontratetan dirala baina herri-kulturea bultzatu behar dala, herritarrak protagonista eta ez ikusle soilak izateko.



UBIDE

Lehiaketara atera da Ubideko Herriko
Tabernaren errentamentua

Taberna eta jatetxeaz gainera, etxebizitza erabilerarako be badago prest eraikina eta gitxienez, 400 euroko errentea ordainduko da, BEZaz gainera.



Asier Abrisketa

Ubideko Udalak lizitazio lehiaketea atera dau Udalaren jaubetzako higiezinan dan Herriko Taberna. Herriko plazan dagoan 564,59 metro karra-tuko eraikina ostaliratzat zerbitzurako bakarrik ez, etxebizitza izateko be badago prestatuta. Honen ustiapenerako kontratua lehiaketa bitartez esleituko da eta erispide bakarra prezioa

da. Hileko oinarritzko errentea 400 eurokoa da, gehi BEZa. Lehiaketara aurkeztuten diranek, errentea gorantza hobetu ahal izango dabe. Lehiaketea bost urteko erabilerarako atera da, eta gero, Udala zein lehiaketearen irabazlea ados badagoz, beste urte biz luzatu ahal izango da kontratua.

Lehiaketarako eskaintzak aurkezteko epea zezeilaren 25ean amaituko da eta doku-

mentazinoa udaletxean aurkeztu daiteke. Udaleko kontratazio mahaiak dokumentazio administratiboa eta eskaintza ekonomikoak aztertuko ditu eta errenta altuena proposatuten dauan hautagaia lehenetsiko da. Behin lehiaketea eginda eta eskaintzarik onena aukeratuta, Herriko Tabernaren hartzaileak 6.000 euroko fidantzea ipini beharko dau.

Errentariet bete beharreko baldintzak

Etorkizuneko errentariak lokala taberna-jatetxe modura erabili beharko dau, astegoienetan eta jaiegunetan zabalik egon, eta urtean behin gitxienez jardue-ra kultural-gastronomiko bat antolatu. Gitxienezko ordutegia 09:00etatik 22:00etara izango da, eta euskerearen presentzia bermatu beharko da kartel, zerbitzu eta menuetan. Horniduragastuak (gasa, ura, argia...) errentariaren kontura izango dira.

BEDIA, IGORRE

Zabalik dagoz Bedia eta Igorreko
jaietako kartel lehiaketak

Bedian aprilaren 17ra arte eta Igorren martiaren 31ra arte aurkeztu daitezke lanak.

Asier Abrisketa

Urte barriagaz, hasi dira inguruko jai batzordeen lehenengo batzarrak egiten. Jaiak antolatu bitartean, aurrera doaz lehenengo ekimenak eta urtero lez, jaien irudia izango dan kartela ebaztea dago eginbeharren artean. Lehiaketea martxan ipinten lehengoak izan dira Bedia eta Igorre. Igorreko lehiaketea martxan dago eta martiaren 31ra arte aurkeztu daitezke proposamenak. Bediakoa hilaren 18an ipiniko da martxan eta aprilaren 17ra arte egongo da zabalik.

Igorreko kartela 59,6x42 zmkoa izango da baina A3 formatuko paperean aurkeztu behar da eta edozein teknika onartuko da; baina “Igorreko jaiak ekainaren/bagilaren 5etik 14ra” testua izan behar dau. Lanak

Kultur Etxean aurkeztu behar dira, norbere datuak gutunazal zarratu baten sartuta. Irabazlea bozketa bitartez ebartziko da aprilean eta saria Igorreko dendetarako 200 euroko bonua izango da.

Bedian barriz 18 urtetik gorakoek ahaliko dabe parte hartu eta teknika librean, kartelak A3 formatu bertikalean aurkeztu beharko dira, “Bediako sanjuak 2026, bagilaren 19tik 24ra”



testuagaz. JPG formatu digita-leko kopia bat be egin beharko da eta lana informazio gunean entregau. Epaimahaia Udaleko arduradunek, Jai Batzordeko kideek, marrazketa irakasleak eta herrikoek osotuko dabe eta maiatzaren 8an egingo da sari banaketea. Irabazleak 50 euroko bonua jasoko dau, herrian erabilteko.

Igorreko Jaietako Frontenis Txapelketea

Jai Batzordeak proposatutako ekimen barri bat aurtan lehenengoz jokatu dan Igorreko Jaietako Frontenis Txapelketea da. Adin guztietako jenteak emon leike izena, bikoteka, <https://labureus/frontenis2026> estekako galdetegian martiaren 31ra arte. Partiduak maiatzean zehar jokatu dira eta finala jaietan jokatu da.

IGORRE

Sei urteko kartzela zigor biri aurre egiteko alkartasun jaialdia hilaren 28an

Bartzelonan poliziak indarrez hustu eban eraikin baten Arratiako herri mobimentuko kide bat atxilotu eben 2020an, bagilean izango dau epaiketea.

Asier Abrisketa

2020ko urtailean, Bartzelonako Olzinelles kaleko okupatutako eraikin bat indarrez hustuteko

operazino baten atxilotuak izan ziran Bartzelonako etxebizitza mobimentuko kide bi, salatu dabenez, “muntai polizial baten ondorioz”. Euretako bat bertakoa

eta Arratiako herri mobimentuko kidea be bada eta auzipetutakoei lagunduteko, alkartasun jaialdia antolatu da Igorren hilaren 28rako. Atxilotuak izan ziran kide bakotxari sei urteko kartzela zigorra eskatuten deutsie baina 2020tik lautan atzeratu da epaiketea. Bagilaren 3an egingo da epaiketea, bosgarrenez. Jaialdian bildutako diru guztia kasuaren kudeaketarako sortu dan Olzinelles Absolució plataformara bideratuko da, auzipetu guztien defentsarako. Izan be, 70 persona dagoz zigortuta. Olzinelles Absolució Elkartasun Jaialdia 18:30ean hasiko da, Axular Herriko Tabernan egingo dan etxebizitza sindikatu desbarden arteko mahai-inguruagaz. Bartzelonako kasua urteteaz gainera, gaur egun gure inguruan dagozan kasuak be aitatuko dira. Mahai-ingurua amaituta, Kiñu Gaztetxean



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Euskarabentura espedizinoan izena emoteko epea zabalik

Garagarrilero Euskal Herria oinez eta euskeraz zeharkatzen dauan Euskarabenturak martiaren 2ra arte zabalik dauka izen-emotea.

Erredakzinoa

Euskerea, saretzea eta kulturea buztartzen dituan Euskarabentura espedizinoak gazteen-tzako esperientzia kolektibo berezia eskaintzen dau, eta aurtengoa ibilbideko zortzigarren aldia izango da. Martiaren 2ra arte dago zabalik izen-emotea euskarabentura.eus webgunean. Hautatuen zerrendea aprilaren 22an plazaratuko dabe, eta hilaren 22tik 30era bitartean baieztatu beharko dira parte-hartzeak.

2009, 2010 eta 2011n jaiotako gazteei zuzendutako ekimena da. 2011n jaiotakoak, Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa edo diasporan jaiotakoak izan behar dira. Guztira 125 gazte aukeratuko dabez, eta garagarrilaren 1etik 31ra egingo dan hilebeteko espedizinoan Euskal Herria zeharkatuko dabe, euskeraz eta oinez. Izen-emotea egiteko, interesdunek formularioa bete beharko dabe, bertan hautagairen eta bere legezko tutoreen datuak jasota. Horrez gain,

gehienez minutu bateko aurkezpen bideoa bialdu behar da, nahitaez WeTransfer bidez; Drive bidezko estekarik ez dabe onartuko. Bideoan, gazteak bere burua aurkeztu, espediziotik zer espero dauan azaldu eta taldeari zelango ekarpenak egin ahal deutzazan adierazo beharko dau. Bestalde, banakako proiektu edo lan bat be aurkeztu beharko dabe hautagaiek. Antolatzaileek sei formatu proposatu dabez: historikoa, literarioa, ikus-entzunezkoa, musikala,

izango dau jarraipena jaialdiak, kontzertuakaz. Konbidautako bandak TOC rock taldea, Borla pop-rock taldea eta zehazteko dagoan beste talde bat izango dira. Amaituteko, Zeberio DJ Matxinada bikoteak ipiniko dau musikea jaiagaz segiduteko.

Telesail grabaketea Kiñun
Hilaren 20an, EITBko Primeran

plataforman emitiduko dan *Lehen aldiz* telesailaren kapituluetakobatengrabaketea egingo da Kiñu Gaztetxean. Jai bat grabauko da eta bertan agertuteko figuranteak behar dira. Parte hartu gura dauanak, Jone Arriola zuzendariaren edo Kiñu Gaztetxearen Instagram kontuetara mezu zuzen bat idatzi beharko dau.



Borla, TOC eta beste talde batek joko dabe Kiñu Gaztetxean.



plastikoa edo sormen digitala. Horreetako baten barruan, hiru gai honeetako bat landu beharko da: *Zer da euskalduntasuna?*, *Ametsak egi bihur daitezke?* edo *Zein garai historikora joan nahiko zenuke?* Formatu bakotxak dokumentazino eta baldintza jakinak eskatzen ditu, eta zehetasun guztiak espedizinoaren webgunean dagoz eskuragarri.

Gainera, 2026ko espedizino-rako lantalde urdina osotzeko kide bila be badabiz. Talde hori medikuek, erizainek, komunikazino arduradunek, bideogileek eta argazkilariek osotzen dabe. Interesdunek webgunearen bidez emon behar dabe izena, galdegegia beteta eta datuak, CVA zein motibazino gutuna erantsita. Kasu horretan, zezeilaren 20a izango da atzen eguna.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Agate Deunaren eguneko argazkiak

Urtez urte, Santa Ageda bezperan gure herrietako kaleak koplaz, makil hotsez eta auzotarren arteko giroaz beteten dira. Tradizino bizi honek belaunaldiz belaunaldi iraun dau, eta gaur egun be indartsu jarraitzen dau BEGITUREN eremuan.

Igaz moduan, aurten be irakurleei argazkiak eskatu deutseguz, eta jasotakoen artean aukeraketa bat ekarri dogu. Ez da handia, baina argi erakusten dau Santa Ageda bezperako ohiturea bizirik dagoala gure herrietan. Eskerrik asko parte hartu dozuen guztioi.



Arratiako Korua Areatzan.



Igorre.



Dima.



Lemoa



Arantzazu.



Zeberio.



Ubide.



Artea.



Bedia.



Zeanuri.



Asterriako auzotarrak. Zeanuri.



Arratiako Korua Bilbon.

AGARREKO AUZOTARRAK

“Gu ez gabiz ezer oparituterik eskatuten, aukera bat eskatuten gabiz; normalak izateko aukera bat”

BEGITU Agarrera hurreratu da, bertan geratuten diran bizilagunakaz berba egitera. Gaur egun hamar bat bakarrik geratuten dira eta salatu dabe, eurentzako ez dala Udalak iragarritako danentzako bigarren plan integrala heldu. Aukera bat gura dabe eta prest dagoz alkiler justu bat ordainduteko.

Asier Abrisketa

Nerea Markina igorreztarra da eta oin urte bi eta erdi heldu zan Agarrera bere bi semeakaz. BEGITU kontau dauanez, bost urtez egon zan bere senar ohiaren tratu txar eta jipoiak jasaten eta lgorren bildur zala-ta joan zan Lemoara. Oin arte, Agarreko pisuan “nahiko ondo” egon dala azaldu dau, familia normal baten moduan, baina egoereak buelta emon dau Gabonetatik ona. Agindu judizial barik eta berak giltzik emon ez dauan arren, etxetik kanpo itxi dabela salatu dau, eta ezer barik itxi dabela, “soinean eroandakoagaz”. Beste aukera barik eta Udalak semeak zentro batera eroateagaz mehatxatuta, amaren etxean itxi behar izan dauz: “Kalean ikusi naz gure txakur biakaz, bizi osoan ez bizitza duin bat, baizik eta apur bat duina, izateko burrukan ibili nazenean”. Azaldu dau, Udaletik emondako lehen urtenbidea familia banandu eta maskotak hiltea izan zala, bera aterpe batera eroanda. Lemoako Udalak iragarritako bigarren aukerea barriz, guzurrea dala salatu dau: “Jenteari bigarren aukerea emon jako baina niri eta hemen geratuten garan familiei ez deuskue ezer opatu”. Etxetik kanpo ikusi zanez, Antonio Pisaren familiak hartu dau etxean eta beragaz doa lanera, azoketara.

Antonio Pisa familiagaz bizi da Agarren oin dala urte eta erdi, andra eta 12, 15 eta 19 urteko alabakaz. Salatu dau familiari erroldatuteko eskubidea ukatu jakola eta ez deusiela alabak Lemoako eskolara eroaten itxi be ez; bata lgorrera eta bestea Dimara eroan behar dauz. Kontau dauanez, bere alaba batek zazpi urterako alkiler kontratua sinatu eban Cementos Lemona-gaz oin urte bi, baina mehatxu artean, bere hiru umeakaz joan egin behar izan zan. Enpreseak hamabost egunerako pisu bat ordaindu eutsala kontau dau, enpreseak eta Udalak beste



aukera bat topau bitartean. “Guzurra izan da, kalean itxi dabe hiru ume-gaz”, kontau dau Antonio. Familia Gasteizetik heldu zan Lemoara, bertan bizi ziran etxeko epea amaituta eta beste ezer topau ezinean. Oin arte, argi eta uragaz, “jente normala moduan” bizi izan dirala dino. Hau be kexau da, Udalak adin txikikoak kentzeako mehatxuak egin ditualako: “Kalean itxi gura deuskue, ezer barik”.

Agarrera heltzerakoan, zelan topau zenduezan etxebizitzak?

Nerea Markina: Ni egon nazen etxea marihuana landatuteko erabilten eban nonok, dana lorontziz eta lurrez beteta egoan. Semeak, lagun bat eta ni hiru egun egon ginan lurra ateraten eta gero sartu nebazan altzari eta etxekotresna elektrikoak. Gitxika-gitxika egin genduan etxea eta oin dana galdu dot, dan-dana.

Antonio Pisa: Gu sartu ginan etxea ondo be ez, baina patxa-

“Biziteko moduan dagoz baina argiaren kontua da arazoa. Argia ebagiaz, udalletxekoek eragin dabe hau leku seguru bat ez izatea”

dazkoa zan. Suteko gauzak, garbigailua, hozkailua eta abar sartu eta kable instalazioak konpondu genduzan.

N.M.: Iberdrola lehenengoz etorri zanean argiteriaren kontua ondo egin gura izan gendun, argindarra pintxau barik. Baina deitu gendunean esan euskuen, dana egunera ipinteko aurreko zorrak -argia pintxauta egon zanetik- guk ordaindu beharko genduala. Nire kasuan hamabi urte, 7.000 eurotik gora.

A.P.: Nire kasuan hamabost urteko zorra zan. Baina kontadore barik, zelan dakie zenbat argindar erabili dan?

Oin arte etxe normal baten modura bizi izan zariela esan dozue, noz hasi zan hau aldatuten?

N.M.: Gabon egunean hasi ziran argiagaz gauza arraroak pasetan. Bat-batean asko egoan eta gero ezer be ez, egun bat bai beste bat ez. Egun baten alkatea etorri zan eta esan eban bloke batzutan argia ipiniko zala

eta bestean ez. Ordutik egon dira itzalaldiak eta abar. Ez dinot Udalaren errua izan danik, baina horren ostean hasi ziran sute arriskuagaz gora eta behera. Ez da holango arriskurik egon. Iberdrolakoak agertu arte ez da argiagaz arazorik egon.

A.P.: Iberdrolakoek ezer be ez esan barik etorri eta ebagi eben argia, hori ilegala da. Alkatearen aginduz etorri zirala esan eben eta udaletxera joan ginan galdezka. Berak esan eban ez ebala agindurik emon eta hori idatziz emoteko eskatu geuntsan, baina ez euskun ezer emon. Guzurti bat da. Halanda be, Ertzaintzaren laguntzeagaz argia ebagi eben eta guk gero barriro martxan ipini.

Argi barik eta neguan, bizi-kalidadea txarragotuko zan. Zelangoa da hemengo egunerokoa?

N.M.: Ba Gabonetatik bueltan latza da holan egotea, hiru egun argi barik eta laugarrenean bai, eta buelta. Bat-batean alkateak deitu euskun, hemen sute-arriskua egoala esanaz eta 24 ordu-tan joan egin behar ginala. Ni ez naz inoz holango egoera baten egon baina bueno mobiduten hasi ginan eta konturatu ginan danori kaleratu gura euskuen egunean, ez egoala horretarako agindu judizialik. Txakurrak atearateko esan eustien eta segurtasunagaitik hori egin neban, etxera bueltetako asmoagaz. Baina ezin izan nintzan barriro sartu. Aste bira, udaletxeko langile bat topau neban etxean sartzean eta sikan erropea hartzeako sartzeako baimena eskatu neutsan, baina sartu nintzanean etxea guztiz apurtuta egoan, ez dakit nork eta zelan eginda. Ez naz bakarria izan, alboan bizi zanari eta beheko gazteei be bardina pasau jakien.

A.P.: Gure etxeak bakarrik ez, nire alabak 500 euroko alkilerria ordainduten eban eta etxetik, hogeta hamar arratoitik gora atera genduzan. 500 euroko alkilerria, pisu hori alkiletako moduan ez egoanean, sute barik eta kable guztiak aldatu behar izan ebazan. Instalazino guztia izan da barria, orduan ez dogu sute-arriskurik egon danik uste.

Orduan, segurua da gaur hemen bizitea?

N.M.: Ba gaur egun... argia izango bagendu bai. Oinarrizko gauzak ipinteko sikan, bonbilla, entxufe batzuk... Etxeak ez dagoz txarto. Biziteko moduan dagoz baina argiaren kontua da arazoa. Argia ebagiaz, udaletxeok eragin dabe hau leku seguru bat ez izatea.

A.P.: Hau hutsitu gura eben sute-arriskuagaitik, baina inori ez deuskue horren frogarik



erakutsi, ez dogu Iberdrolaren txostenik edo holangorik ikusi. Informea daukiela esan deuskue baina erakutsi gura ez, enpresa pribadu bat kontratau dabe txosten hori egiteko. Alkateak esan euskun pisu honeek Lemoan bizi diranei alkiletako gura dabezala, baina... gu ez gara Lemoan bizi ala?

N.M.: Gu sartzeako beste lekurik ez badaukie, hemen etxe hutsak dagoz. Alarmak kendu eta argia barriro ipini ahal dabe. Mobilak kargau eta esne apur bat berotuteko bada be, ez dogu askorik eskatuten. Nora sartu ez badaukie hemen badago lekua. Gero adibidez, inoz ez da pasau baina atzoko ekaitzagaz, kaleko estoldek lehertu egin dabe eta hau nazkagarria da...

Alkiler bat ordainduteko prest egongo zinien?

N.M.: Bai, bai! Guk ez dogu ezer oparituterik gura. Baina ez dodaz ordainduko 500 euro be ez, Antonioren alabak egiten eban moduan, sute eta lehio bako etxe bategaitik. Bakotxak daukazan irabaziak kontuan hartuta edo, alkiler bat egokitu

ahal da.

A.P.: Cementos Lemonak badaukaz eraikin gehiago eta pilo bat pisu dagoz hutsik. Hara be eroan ahal deuskue.

Udalak esan eban bigarren “birkokatze plan integral” bat egingo ebala, heldu jatzue notizirik?

N.M.: Ez dago planik, guretzako ez. Alkatearen erantzunaren zain egon ginan eta heltzean ez zanez, guk deitu ginun. Alkateak esan euskun lehenengo aukerea onartu ez genduan, bigarrenik ez zala egongo.

A.P.: Lehenengo aukeran opatu eustiena zera izan zan, familia osoa gela baten bizitea eta animaliak sakrifiketea. Baina zelan biziko gara ni, emaztea eta 12, 15 eta 19 urteko alabak gela baten? Hori ez da bideragarria.

N.M.: Guk hemen familia egin dogu atzenean. Nire seme txikia eta Antonioren loba lagun egin dira eta Agarre hutsitu gura eben egunean, negar asko egin eben, pentsetan ez zirala gehiago ikusiko. Taldea egin dabe, danok egin dogu. Ni lan barik egon naz eta umeen es-

Esther Iturrioz: “Oso harro gagoz egindako lanagaz”

Agarreko bizilagun biei egindako alkarrizketan, hainbat dira Esther Iturrioz alkateari eta Lemoako Udalari egindako akusazioak. Hasteko, Iturriozek BEGITU berretsi dau Udalak auzotar guztiei opatu deustela urtenbide bat: “Hainbat eta hainbat aldiz erregutu jakie euren esku ipinitako baliabideei eusteko. Baliabideak gainera, ez dira infinituak eta aukerei heltzea garrantzitsua da eurentariko batzuk dagozan egoera ikusita”. Beste alde batetik, defendidu dau prozesu guztia “argi eta garbi” azaldu dabela eta “teknikari eta profesionalen berme guztiak” izan dituala. Biribildu dau, “oso harro” dagozala egindako lanagaz: “Ahots kaudimendunek esan deuskue Lemoan egindako lana eredugarria izan dala”.

Antonio Pisak bere alabak Cementos Lemoagaz izandako kontratuaren eta etxebizitza alternatiboa topetearen gainean barriz, adierazo dau enpresek bakarrik izan dauzala hartu-emonak beragaz. Nerea Markinak bere etxetik zelan kanporatu eben kontautakoaz oster, Iturriozek esan dau Udalak ez dauala horren barririk izan: “Ez dauka zentzurik egia esan”. Berretsi dau danak ohartarazota egozala eta boluntarioki itxi ebezala etxea eta giltzak: “Denporea izan eben batzeako edozelan be, ez dago inolako arazorik, lagunduko geunkio bere gauzak batzera baina ez dogu jaso holako eskaerarik”.

kola ordutegietara adi egon behar... Antonio eta familiak opatu deustie eurekaz azokara joan ahal izatea, etxeko ateak zabaldu deustiez...

Bizikidetza arazo eta lapurretei buruz be egiten da berba Lemoan, zelan bizi dozue hori komunidade honetatik?

N.M.: Bueno hemen auzokide onak eta txarrak egon dira. Nik ez dot inogaz arazorik euki baina kontuan hartu behar da asko ezer be ez daukien gazteak izan dirala, familiatik urrun, hona umeak izanda heltzean diranak. Ni ondo egon naz. Arazoak egon dira bai baina ze auzotan ez dago holakorik ba? Lemoan manifestazinoak egin ziranen gu izan ginan han egoten lehenengoak, ze guri be ez jaku delinkuenteakaz bizitea gustetan. Bakarrik egozan gazte guztiak joan dira daborduko. Bi geratuten dira, Bilbora behar egitera joaten diranak. Gero andrea haurdun dagoan familia, Antonioren familia eta ni geratuten gara; Antonioren alaba nagusia ziurrenik be bueltauko da, ze lehen kontautakoagaitik ezer barik gelditu da. Hamar bat persona gagoz oin hemen, danak adin txikikoakaz.

Laguntzea be izan dozue

ezta?

N.M.: Bai gaztetxeko gazteak gugaitik asko arduratu dira: janaria, ea erroparik behar genduan, dutxetako... Pilo bat lagundu deuskue. Arratiako Sare Antiarrazistakoak eta gaztetxekoak oso ondo portau dira gugaz.

Ze mezu emon gura deustazue Agarre arazo moduan ikusi baina zuok ezetuten ez zaituen lemoaztarrei?

A.P.: Ba esaten dan moduan, *unos llevan la fama y otros cardan la lana*. Hemen ez gara danok gatatzak. Askok, nire moduan lan egiten dogu; nik azokatan gora eta behera. Gaztetxeok lagundu deuskue baina EAJ eta jente horreena... ez dogu inoren babesik izan. Guzti hau lotsagarria izan da. Gainera, salatu gura dogu animalien babesleen aurrean, Udalak gure maskotak sakrifikau gura izan dauzala.

N.M.: Ba gu ez gabizala ezer oparituterik eskatuten, aukera bat eskatuten gabiz. Normalak izateko aukera bat gura dogu, bizi normal bat eukitea. Bildurragaz itxartuten naz, ia gaur zer pasauko dan. Eta ni eta nire umeataz zer izango dan... ba batek daki!



- **LAN PUBLIKOAK**
- **UR ETA SANEAMENTU SAREAK**
- **BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**
- **PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**



94 631 72 57



ekin@ekinsl.eus



Igorre (Bizkaia)

MENDIA

Alex Txikonek bere meditatinoen gaineko liburua aurkeztuko dau Bedian hilaren 24an

Hilaren 24an, eskoletan egingo da *Mundu bat motxilan*, Alex Txikonen meditazioak liburuaren aurkezpena eskoletan, 17:30ean.

Asier Abrisketa

Alpinista lemoaztarrak eskarmentu handia dauka, hamalau zortzimilakoetatik hamaika zapaldu dauz, eta goi-mendi hareetan zein bidean, beste hamaika esperientzia pilatu ditu. 2019an, Sua argitaletxeagaz *Mundu bat motxilan*, Alex Txikonen meditazioak liburu argitaratu eban, Unai Ormaetxeak idatzita eta Cesar Llagunoren ilustrazioakaz. Liburu ez da Txikonen biografia bat, “bizitzea ikusteko modua azaltzeko ahalegin” bat baizik. Oin, Bedian egingo da liburuaren aurkezpena zezeilaren 24an, 17:30ean eskoletan. Bertan, liburu erosteko aukerea be izango dabe bertaratutakoek. Liburuak Alex Txikonen espedizino bat irudikatuten dau, oxigeno barik eta negu betebetan, munduko gailurra dan

Everestera. Errealidadean moduan, igoera hori hausnartu eta gogoetea egiteko momentua be bada, sinopsian esaten dan moduan, “bizitzan, mendian eta mendizaletasunean murgiltzera, balioei buruz hasnartzera eta natureaz gozatzera” doa Txikon. Holan, lemoaztarrak bere espedizinoetan izandako gogoeta, bizipen eta pasadizoak azaleratuten dira: “Mendia izan daiteke batera zorientasuna eta sufrimentua, laguntasuna eta bakardadea, zirimola eta aingurea, pizgarria eta motela. Dana amaitu eta hasten dan lekua”. Liburu argitaratu ostean be, bizipen garrantzitsuak izan ditu Txikonek -2023an Manaslu neguan igoten lehena, 2024an Annapurnako saiakerea eta 2025ean, apendizitisa eta lurrikare Nepal- eta ziur, horreetaz berba egiteko aukerea be izango dabela bertaratutakoek.



HERRI KIROLAK

Mikel Etxebarria eta Janire Artabe badagoz Zeelanda Barrian, Munduko Txapelketarako prest

Munduko ardi moztailen txapelketea martian jokatu da eta Euskal Selekzinoak lehenengoz hartuko dau parte.

Asier Abrisketa

Golden Shears munduko ardi moztaille txapelketea martiaren 4tik 7ra jokatu da Mastertonen (Zeelanda Barria) baina daborduko Euskal Herriko selekzinoa badago bertan. Tartean, Mikel Etxebarria eta Janire Artabe dimoztarrek hartuko dabe parte. Txapelketea hiru urterik behin jokatuten da eta hau hogeigarren edizino izango bada be Euskal Herria lehenengoz egongo da lehian. Abadiñon egindako selekzinoaren aurkezpenean adierazo ebenez, esperentziaz gozatutera eta Euskal Herria moztaille herria be badala aldarrikatu dabe mundu mailan. Selekzinoa osotuteko, 2025eko nazinoarteko zirkuituko eta Abadiñon jokatutako Euskal Herriko Txapelketako

emaitzak izan dabez kontuan. Taldeburua Joseba Attard earra izango da eta hiru modalidade dagoz. Makineagaz Mikel Etxebarria dimoztarra eta Joseba Ugalde lezamarra eta artaziagaz Ipar Arrinda lekeitiarra eta Josu Ekisoian ibirikuarra egongo dira. Artilariak barriz, Janire Artabe dimoztarra eta Mikel Velasco arrasatearra izango dira. 28 selekzinok hartuko dabe parte munduko txapelketan, estaduak zein estadu bako nazinoak: Euskal Herria, Argentina, Australia, Txile, Cook Ugarteak, Txekiar Errepubliketa, Ingalaterra, Estonia, Falkland Ugarteak, Finlandia, Frantzia, Alemania, Man Ugarteak, Japonia, Mongolia, Herbehereak, Zeelanda Barria, Ipar Irlanda, Norvegia, Irlandar Errepubliketa, Eskozia, Hego Afrika, Espainia, Suedia,

Suitza, Uruguai, Ameriketako Estadu Batuak eta Gales.

“Mugarri historikoa”

Euskal Ardi Moztailen Elkarte-ko kideek Abadiñon egindako aurkezpenean aldarrikatu eben: “Mugarri historikoa izango da Euskal Herria munduko 28 herrialdegaz batera lehian egotea”. Aurretik egindako lanagaitino, ardi moztailleena “hazten dabilen familia” bat dala defendidu eben: “Oin urte bi, moztaille hutsak besterik ez ginan; gaur egun, nazinoarteko aitortza ofiziala jaso dogu Euskal Herri osoaren ize- nean”. Izan be, aurretik alkarte osotu eben eta 2025ean lehiaketa ofiziala jokatu zan Abadiñon, “Euskal Herrian inoz egin dan txapelketarik handiena eta oin, munduko txapelketan lehiatuko gara lehenengoz”.



FUTBOLA

Andrazkoen Arratia A eta B taldeek lidertzan segiduten dabe

Andrazkoen Arratia Bk eta Lemoako Harrobik atzen jardunaldiko partiduak irabazi ebezan; gizonezkoen Arratia Bk bardindu eta A taldeak galdu.



Andrazkoen Arratia B eta Berriotxoaren arteko partidua.

Erredakzinoa

Andrazkoen Arratia B taldeak hilaren 14an jokatu eban Berriotxo A taldearen kontra eta 4-0 irabazi eban. Golak Uxue Aurtenetxek (24. minutuan), Iratxe Bernaolak (38. minutuan), Alaitz Zelestinok (39. minutuan) eta Miren Gordok penaltiz (55. minutuan) sartu ebezan. 17 jardunaldiren ostean 41 puntu ditu Arratia Bk eta lidertzan dago, halanda be bigarren sailkatua dan Indartsuk partidu bat gitxiago jokatu dau. Datorren partidua Pauldarrak B taldearen kontra jokatuko dau etxetik kanpo hilaren 22an, 17:00etan.

Andrazkoen Arratia A taldeak atsedena izan eban eta datorren partidua Añorga taldearen kontra jokatuko dau etxetik kanpo hilaren 22an, 17:00etan. 16 jardunaldiren ostean 36 puntu ditu Arratia Ak eta lidertzan dago.

Gizonezkoen Arratia A taldeak hilaren 14an jokatu eban etxetik kanpo Abadiño A taldearen kon-

tra eta 2-0 galdu eban. Arratiak ez dau bururik altxetan eta atzen bost partiduetan puntu bakarra lortu dau, halanda be 21 jardunaldiren ostean 36 puntu ditu eta hirugarren postuan dago, igoera postuetan, hori bai laugarren postuan dagoan Mungia A taldea puntu bira baino ez dauka oin. Datorren partidua Urbietan jokatuko dau Galea A taldearen kontra hilaren 21ean, 17:00etan.

Gizonezkoen Arratia B taldeak hilaren 14an jokatu eban Urbietan Etxebarria A taldearen kontra eta husna bardindu eban. 21 jardunaldiren ostean 20 puntu ditu Arratia Bk eta hamalaugarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatuko dau Montefuerte A taldearen kontra hilaren 21ean, 15:45ean.

Arratiaren Futbol Kanpusa

Arratia Futbol Taldeak aurtan be antolatu dau Aste Santuko Futbol Kanpusa. Martiaren 30 eta 31n eta apirilaren 1ean Igorreko Ur-

bieta zelaian eroango da aurrera. Futboleant olgau bakarrik ez, urtekera, teknifikazino zein ginkana eta jolasak egiteko aukerea izango dabe hiru egunez 2014 eta 2021 urteen artean jaiotako neska-mutilek. Ordutegia goizekoa izango da, 09:30etik 14:00etara.

Ume bakotxeko prezioa 65 eurokoa da, ordainketa horregaz eguneko armozua eta kamiseta bat be sartzean dira. Izena emoteko 747 452 538 edo 94 631 57 04 telefonoetara deitu edo cdarratia@cdarratia.com helbidera idatzi behar da martiaren 20ra arte. Kanpusa aurrera eroateko gitxieneko kopurua bete behar da.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobi taldeak hilaren 14an jokatu eban etxetik kanpo San Miguel A taldearen kontra eta 1-2 irabazi eban. Lemoaztarrek gol bi sartu ebezan lehen zatian, lehen gola Unai Zuluetak sartu eban 29. minutuan eta bigarrena Unax Arnaizek 44. minutuan. Bigarren zatian etxe-koek alde murritzut ebene 54. minutuan 1 eta 2koa eginaz. Handik hiru minutura Lemoako taldea jokalaria bat gitxiagogaz geldituz baina markagailua ez zan mobidu. 21 jardunaldiren ostean 43 puntu ditu Lemoako Harrobik eta hirugarren postuan dago, igoera postuetan dagoan Ermua taldea lau puntura dauka. Datorren partidua Arlonagusian jokatu dau lurretako A taldearen kontra hilaren 21ean, 17:30ean.

PELOTEA

Arratiar bi Florida vs The World Wallball Txapelketako garaile

Lur Ziarrusta eta Mikel Beldarrain pelotari arratiarrek osotutako bikotea, Floridan jokaturen dan Florida vs The World Wallball Txapelketea irabazi dauan lehenengo bikote europarra bihurtu da.

Ager Barragan

Txapelketa hau, urtero, Floridako Hollywood uriko Hollywood Beach-en ospatuten dan wallball txapelketea da eta bertan, Floridako bikoteak Estatu Batuetako

eta munduko beste herrialde batzutako bikoteen kontra jokaturen dabe. Aurtan 100 bikotek osotu dabe txapelketea eta beste batzuen artean Florida, New York, Philadelphia, Puerto Rico eta Euskal Herriko bikoteak

egon dira torneo hau jokaturen. Ziarrusta eta Beldarrainek zazpi erronda jokatu ebezan finalerarte helduteko, lehenengo partidu biak barikuz eta beste guztiak zapatuz. Finalerdietan, igazko txapelkunak -Floridako

TXIRRINDULARITZEA

Agortu dira Bediako Kolazinoko Mendi Eguneko dorsal guztiak

Hamargarren edizino honetan 650 parte-hartzaile egongo dira, tartean, Euskadiko txapelketako korrikalariak.

Asier Abrisketa

Martiaren 14an egingo dan Kolazinoko Mendi Egunean hiru lasterketa eta martxa bat dagoz antolatuta eta izen-emotea martiaren 4an zarratu behar bazan be, salduta dagoz daborduko dorsal guztiak. Beraz, Bedian ospatuko dan mendi eguneko giro ona ziurtatuta dago eta gainera, Euskadiko Mendi Lasterketen Txapelketea be egongo da jokoan. Lasterketa luzean 300 eta laburretan 200 korrikalari eta mendi-martxan 150 parte-hartzailek hartuko dabe parte. Honeei lagun eta familiak gehitu ezkeru, egun biribil bat espero da Bedian. Pasau dan urtean, edurra eta lupetza izan ziran protagonista, oingoan, ikusteko dago.

Esan moduan, martiaren 14an Mandoia (638 m) tontor

nagusi moduan izango dauzan lasterketa bi eta martxaz gainera, gazteentzako lasterketea be korriduko da. Lasterketa luzeak 24 kilometro eta 1.511 metroko desnibela dauka eta laburrak 17 kilometro eta 1.002 metroko desnibela. 15 eta 18 urte bitarteko gazteentzako barriz, 13 kilometro eta 700 metroko desnibeleko ibilbidea prestatu da. Martxeak ostera 16 kilometro eta 800 metroko desnibela dauka.

Txiki lasterketea domekan

Lasterketa eta martxa nagusien hurrengo egunerako, Kolazinoko Mendi Eguneko antolatzaileek txikerrenentzako lasterketak be antolatu dabez. Izen-emotea doban egin daiteke sportsmaniacs.com webgunean. Lasterketa bi egingo dira, hiru eta bost kilometrokoak.



Maxwel Guzman eta Jonathan Rivera- garaitutea lortu eban bikote arratiarrak eta finala New York-eko Brian Duran eta Michael De Crescenzok osotutako bikotearen aurka 21-18 irabazi ostean, aurtengo edizinoko garrikoak Arratiara ekarte lortu dabe Ziarrusta dimoztarrak eta Beldarrain arteaztarrak.

Beldarrainek BEGITURI adierazo deutso, udan Herbeereetako mundiala jokatu ostean, txapelketa hau aspalditik euki dabela euren egutegian markauta denporaldia amaituteko dauan torneorik garrantzitsuena dalako eta, garaipen honegaz, euren denporaldiko helburua bete dabela.



IRAKURLEEN TXOKOA

Miren Agur Meaberen poemak landuko dira Arteko Irakurleen Txokoan

Hilaren 20an, 19:00etan egingo da Alaine Agirrek gidatutako *Amorante frantsesa* liburuaren lanketea.

Asier Abrisketa

Zezeileko Arteako Irakurleen Txokoan, Miren Agur Meabe idazlearen *Amorante frantsesa* (Susa, 2025) liburuak dakar Alaine Agirre idazleak, arteaztar literatur zaleakaz lantzeako. Lan hau, poema bitartez idatzitako nobela bat da eta personaia arrunt baten "epopeia xumea" kontetan dau, "thriller ikutuakaz". Idazleak berak kontetan dauanez, liburuak idazterakoan hiru asmo eukazan gogoan: euskeraz gitxi landutako eremu bat esploratzea, irakurketa errutina apurtutako proposamen bat eskaintzea eta irakurleak suspense, sensorialtasun eta go-

goetazko istorio batera erakartea. "Egunero etxerakoan lepo gainera igoten jakozan itzalez inguratuta bizi da, basoan, kontakizun hone-tako protagonistea, Agurtzane. 60 urte beteak, atezaina da ikastetxe baten eta egiteko nagusi bi ditu: osasun mental arazoak dituan ahizta arduratu eta barriro loratutako sentiduten dauan irrikea asetu. Irati Beraza ikaslearen gorpua Artxandan agertu izanak barritz, detektibe amateur bilakatuko dau. Lagunak, txakur adoptau bat, urtegia, iraganeko absentziak eta maitale barri bat kurutzatuko dira bere bizimoduan. Ezusteko betetako bakardadea, basoko argi eta soinukaz nahastean", dino sinopsiak.



ESAERAK

Esakune zaharrak berreskuratuteko ekimena egingo da Bedian

Asier Abrisketa

Bediako Ludotekako umeei, Eleizalde jubiladu eta pensinodunen alkarteak eta andra taldeak *Esaera zaharrak askatu* ekimena ipini dabe martxan, esakune zaharrak erreku-peretako helburuagaz: "Kaiolatutako esaera zaharrei he-goak emongo deutseguz". Holan, zezeilaren 26ra arte, astebarruan 16:30etik 19:30era jentek esakune zaharrak eroan ahal izango ditu, eta honek kaiolan sartuko dira. Esaera horrek batuta, martian zehar eguaztenero 17:30ean zabalduko da kaiolia. Bertara taldetan zein banaka hurbildu ahal

izango da jentea, aitatutako taldeek aukeratutako esakuneak zein norbanakoek itxitakoak irakurtera.



ANTZEZLANA

Identidadearen bila, Lasarte Aretoko oholtzan

Asier Abrisketa

2023ko apirlean estreinau eban Gilkitxaro antzerki taldeak *Identitateak* antzezlanak Kotxepinen eta oingoan, zezeilaren 21ean, Igorreko Lasarte Aretoko taularatuko da jolastu bitartean identitatea topetea helburu daukan antzezlanak: "Etenbako bilaketa dan solasaren jolasen arituko dira pertsonaiak, galduko dira, eta aurkituko dira". Lutxo Egiak idatzitako testua Ane Zabala eta Galder Perezek gorpuztuko dabe, Aitor Garcia de Bikuña musikariaren laguntzeagaz, 20:00etatik aurrera. Identidadeen gaia oholtzan jorrotutuen eskarmentua daukan Egiak genero identitatea lantzean dau batez be, baina baita euskalduntasuna, markak, iruditeria... Holan, mundu zarratu, aldaezin eta esentzialista batetik, identitateak konfiguretan dabezan praktika sozialetarako bidaia bat da gidoia eta pertsonaiak, jola-

sen bitartez landuko dabez identitatea horreek. Gai mamitsuak landuko diran arren, Gilkitxaroren beste obretan moduan, umore absurdo eta zirikatzailea izango da nagusi, kabaret kutsuak be igarriko diralarik.

Gilkitxaro

Gilkitxaro antzerki taldeak 1996an hasi eban bere ibilbidea Deustuko Gaztetxean. Orduan gazte koadrilla batek osotuten eban kolektiboa, baina oin, Ane Zabala eta Galder Perez geratu dira taldeko kide egonkor lez. "Askatasuna eta komedia dira taldearen egiteko motoreak. Askatasuna sormenean eta antzezteko unean, egitura komertzial edo instituzionalakaz lotura bakoa. Askatasuna, justizia sozialagaz batera izaten da lanen ildoak, komedia landuz. Komedia, ikusleengana hurreratzeko tresnarik eraginkorrena dala sinisten dabelako" dinoe taldekoek euren webgunean.



ANTZEZLANA

Itzalak eta txotxongiloak dakar Alabazan konpainiak Arteara

Hilaren 17an, 18:00etan taularatuko dau Bego Alabazan kontalariak *Luziaren sekretua*.

Asier Abrisketa

Alabazan konpainiako Begoren eskutik eta eskolaumeen Arastuteetako jaiegunak aprobetxautu, txikerrentzako itzal eta txotxongilo antzezlanak egongo da ikusgai Artean hilaren 17an, martitzena. Kultur Etxean 18:00etan egingo dan saioan, *Luziaren sekretua* obrea taularatuko da. Jatorria Txinan daukan itzalen hizkuntzearen bitartez, baina planteamentu teknikitik ikuspegi gaurkotuago batagaz, Alabazan konpainiak "gure itzala, gure alde iluna maitatuteaz" egiten dau berba antezlanean. "Bego Alabazan liburutegizaina poz-pozik dago bihotzeraino heldu

jakon liburu bat aurkitu daualako: Luzia izeneko neskatila, bere itzalak jaubetuta, beragaz haserratu eta bere aldetik botaten dau. Itzalak, bere personarengandik bananduta, abenturak bizi izango ditu itsasoaren

sakonean, eta han Itsasoetako printzesa ezetuko dau, sirena bat, bere buztana beragaz partekatuten dauana, lagunak egiten diranean. Alkartuko ote dira barriro Luzia eta bere itzala?", dino sinopsiak.



PAILAZOAK

Antxo ta Pantxak girotuko dabe Bariku txiki

Zezeilaren 20an, 18:00etan taularatuko da *Lurrazpitik* antzezlanak Abaroan.

Asier Abrisketa

Hileon Bariku txiki ekimenaren beste saio bat egingo da Diman, herriko txikerrenentzako hilerio bariku baten jarduerak proposatutako inizatibea. Zezeileko saioa 20an egingo da, 18:00etan, negu osoan lez, Abaroa aretoan. Oingoan, konbidatuak etxeak dira, Antxo ta Pantxa pailazo polifazetikoak. Euren hamargarren urteurrena ospatuten dabil eta honetarako beren-beregi prestatutako *Lurrazpitik* ikuskizuna taularatuko dabe. Istorio honetan, Antxo ta Pantxa indusketa batera joango dira, bertan agertuten diran gauza mistriotsuak aztertutera. Bertan arma-duden gudakaz, energia nuklearragaz eta helduen gudakaz lotutako gauzak topauko ditue, jolas, magia eta jantzakaz interpretauko dabe-zalarik eta gure herriaren historia, justizia eta errespetualango gaiak landuz. "Emozinoz betetako famulientzako antzezlanak", prometi-du dabe Antxo ta Pantxak.

PAILAZOAK

Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore Igorren egongo dira

Hilaren 28an, *Zerua lapurtu dute!* ikuskizunaren saio bi egingo ditue Lasarte Aretoan.

Asier Abrisketa

Pailazoen Katxiporreta koope-ratibeak eta Aranzadi Zientzia Elkartek alkarlanean landu eben ume eta familientzako zuzendu-tako *Zerua lapurtu dute!* ipuin eta diskoa, Karmele Gorroñoren ilus-trazino eta Xabier Zabalaren mu-sikeagaz. Oin, astronomia, argi kutsadurea, pantailen erabilerea eta naturearen zaintzealango gaiak jorratuten dauzan proiektu pedagogiko hau taularatuten dabiz Porrotx, Marimotots, Pupu, Lore eta bidelagun izango daben Birtxi farozaina, Virginia Garcia Aranzadiko astronomia saileko

dibulgatzaileak gorpuztuta. Holan, taldea Igorreko Lasarte Aretoan egongo da hilaren 28an, zapatua, argi kutsadurearen ara-zoa belaunaldi barri, guraso eta hezitzaileen artean gizarteratuteko ahaleginean. Saio bi egingo dira, lehenengoa 16:30ean eta biga-rrena 18:30ean. "Porrotx, Mari-motots, Pupu eta Lore arduratuta dagoz izarrik ikusten ez dabelako. Zer gertatu da zeruagaz? Lapurtu egin al deuskue? Birtxi farozaina-ren laguntzeagaz urdin infinitura abiatu dira izarren bila... uniber-soaren sekretuak ezetutera, urru-nera begiratzuz barrura begiratute-ko! Etorri gura?", dino sinopsiak.



KULTUREA

Umeentzako ekintza bi Kotxepin Kultur Etxean

Zezeilaren 25ean ipuin kontaketeaz eta 27an txotxongilo ikuskizunaz gozatuko dabe txikerrek.

Asier Abrisketa

Zezeilaren atzen asterako ekintza bikotxa antolatu da Lemoako Ko-txepin Kultur Etxean. Lehenengoa hilaren 25ean, eguaztena, izango da eta Leire Catalá ipuin konta-lariak, *Printze giltzapetua* istorioa kontauko dau 18:30ean. Egun bi beranduago barriz, barikuan, Ano-dino Teatrokoek *Mamuak ezagut-zeraz joan zen umea* txotxongilo ikuskizuna aurkeztuko dabe, hau be 18:30ean.

Ipuin kontaketan, Leire Cata-lák liburutegi bateko garbitzaile baten papera hartzean dau, liburu guztiak ezetuten dauzan bakarra. Holan, Lady Bayerina-ren *Printze giltzapetua* istoria kontauko dau, mundu fantas-tiko baten murgilduta eta garbi-tzailearen lanabesak personaia bihurtuaz. "Ezpata bihurtutako lumeari helduta eta bere zaldi iletsuaren gainean, Lan eta Bas printzesak aurkituko dauz, aben-tura magiko honetan gidatuko dauzanak", dino sinopsiak.

Txotxongiloak eta aktoreak buztartuz
Zezeilaren 27an txotxongilo eta



antzezle ikuskizun mistoa egongo da ikusgai lau urtetik gorakoen-tzako. *Mamuak ezagutzeraz joan zen umea* antzezlanak bildurrei aurre egitera ausartuten dan umen baten istorioa kontetan dau: "Ez dodaz inoz ikusi baina badakit hor dagozala. Gaur, ar-mairu barruan ostenduten diran mamu horreek ezetutera joango naz eta bildurra eragiteari ixteko esango deusiet". Leire Orbe eta Maite Fombellida aktoreek taula-ratuko dabe lana, Mikel Fernandi-noren txotxongiloak.

BERBALDIA

Diktadura eta trantsizinoko andren errepresinorako instituzinoen gaineko berbaldia Zeberion

Asier Abrisketa

Andrea Momoitio (Ortuella, 1989) kazetari eta idazlea Pikara Magazine aldizkari feministako asanbladako kidea eta Bilboko La Sinsorga kultu-ra eta pentsamentu feministarako espazioaren sortzaile eta koordi-natzailea da. Hamabost egunik be-hin, memoria historikoa eta andren gainean idazten dau Publico komu-nikabidean eta Zeberiora, gai ho-rregaz dator hilaren 20an, barikua. Plazako Ermita Zaharrean egingo dau berbaldia, 18:30ean hasita.

Berbaldian, diktadura eta tran-sizino garaietan andren zapalkun-tzan parte hartu eben itxialdiko zentroak aztertuten ditu; besteak beste, Andren Babeserako Patro-natua eta kartzelak. Horrezaz gai-nera, zapalkuntza hori justifiketan eben legeen gainean be egingo dau berba: Alfer eta Gaizkileen Le-gea edo Arriskugarritasun eta Erre-habilitazino Sozialaren Legea. Bes-te berbagai batzuen artean egongo da, zelan diktadurea denporeagaz aldatuten joan zan, barbarako prostituzinoagaz lotutako gaietan.

DUNBA

Arratiagaz batera hazten dan proiektua



Zulaibar Lanbide Ikastegia

Igaz, Zulaibar Lanbide Ikastegiak pausu garrantzitsua emon eban gure bailararentzat: gela sensoria-la martxan ipini eta bere irakasle taldea Snoezelen ikuspegian for-mau eban, holan Arratian aitzin-

daria dan baliabide bat sortuz. Holan jaio zan Igorreko Eskola Publikoagaz alkarlanean egin-dako lehen proiektua, hezkuntza premia bereziak dabezan gela egonkorreko ikasleentzat esku-hartze indibidualizauak eta espe-rientzia sensorial esanguratsuak

garatzeko gune bat sortuaz. Proiektuari amaierera emoteko, hedapen jardunaldi bat antolatu zan bailarako hainbat eragilegaz: hezitzaileak, mankomunitateko arduradunak eta adinekoen egoi-tzetako profesionalak. Emaizta argia izan zan: Arratian benetako beharrak dagoz eta alkarlanerako prestutasun handia. Ikastetxe eta egoitza askok 2025-2026 ikasturtean proiektuan parte har-tzeako interesa agertu eben. Aurrera egiteko, beharrezkoa zan ekimen komunitario honeri eusten deusnan egiturea sendot-zea. Ikasturte honetan posible izan da hori inguruko kooperatiba biren konpromiso sozialari esker: BATZ (Igorre) eta ULMA (Otxan-dio). Biek proiektua ekonomiko-ki babestea ebatzi dabe, beren jarduera garatzen daben komu-

nidadeagaz daukien loturearen adierazgarri moduan. Hareen lankidetzeari esker, hasitako lana sendotu da eta oindino gehiago zabaldu ahal izan da. Babes horrerri esker, Igorreko gela egonkorreko ikasleek Zulai-barrera etorten jarraitzen dabe, eta, gainera, aurtan Otxandioko adinekoen egoitzeagaz lan ildo barri bat gehitu da. Kasu batzu-tan, persona nagusiek Zulaiba-rreko gela sensoriala bisitauko dabe; beste batzutan, barriz, Zulaibarreko profesionalak eta ikasleak izango dira egoitzara bertaratuko diranak, han Snoeze-len espazio egokitu bat sortzeako beharrezkoa dan materiala eta ezagutzea eroanez. Proiektu honek agerian ixten dau hurbileko baliabide malguak izateak daukan balioa, persona bakotxaren

ezaugarrietara egokitzeko eta ingu-ruko benetako beharrei erantzute-ko gai diranak. Aldi berean, Zulai-barreko ikasleei esperientzia erreal eta esanguratsuak eskaintzen deutsez, hareen gaitasun profesio-nalak indartuz eta inklusinoa eta konpromiso soziala bezalako ba-lioetara hurreratuz. Gaur egun, Arratiak baliabide bizi, partekatu eta hazten dabilana dauka, ikastetxeen, erakundeen eta enpresen arteko lankidetzatik sortua, komunitadearen bizi kali-dadea hobetzeko helburuagaz.



AGENDEA

ZEZEILAK 17
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Aratusteak. 18:00etan, Mozorro eta Tostada Txapelketak. Herriko Tabernan.

AREATZA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

18:00etan, Uparan Jubilatu eta Pentsiodunen Elkartearen Inauteri jaia. Jubiladuen lokalean.

Hilaren 28an izango dan Zuhaitz Egunean parte hartzeako izen-emotea <https://labur.eus/ZuhaitzEguna2026> estekan. Hilaren 25era arte.

ARTEA

18:00etan, Alabazan ipuin kontalarien *Luziaren sekretua* itzal antzerkia. Kultur Etxean.

BEDIA

Zezeilaren 26ra arte, *Esaera zaharrak askatu* ekintzarako esakeren aurkezpena (esakerak askatuteko, kaiolea martian zabalduko da eguaztenero). Informazino gunean, 16:30etik 19:30era.

Aratusteak. 17:30ean, sarrerea, *photocall*-a eta desfilerako izen-emotea; *Gora kopak: bi ahots, bihotz bat* antzerki, musika eta jantza ikuskizuna; 19:30ean, txokolatea.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

Gazte Barri Dantza Taldeak jantzetarako erropak sortuteko jostunen laguntzea behar dau eta tailerrak egingo dira. Josten jakin ezkerro idatzi gaztebarri@gmail.com helbidera.



Zezeilaren 24ra arte, jaietan txosnea ipinteko eskaerea udaletxean aurkeztuteko aukerea.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

Zezeilaren 25era arte, *Xerka: Euskal landa-eremuko LGTBQ+ komunitatearen istorioak eta erretratuak* erakusketea. Igorreko Kultur Etxean.

2026ko Igorreko Jaietako Kartel Lehiaketeta martxan. Martiaren 31ra arte aurkeztu ahal dira lanak. Kultur Etxean.

Lehen aldiz telesailean figurante moduan agertu gura dauanak Instagrametik mezu zuzen bat bidali Kiñu Gaztetxearen edo Jone Arriolaren kontuetara.

Igorreko Jaietako Frontenis Txapelketan izen-emotea zabalik

<https://forms.gle/GoFa1z5vaQmdb4U4A> helbidean. Partiduak maiatzean jokatu dira.

Arratiaren Aste Santuko Futbol Kanpusa. Martiaren 20ra arte emon daiteke izena martiaren 30 eta 31n eta apirilaren 1ean Igorreko Urbietazelaian egingo dan kanpusean. Izena emoteko 747 452 538 edo 94 631 57 04 telefonoetara deitu edo cdarratia@cdarratia.com helbidera idatzi.

Zezeilaren 19ra arte, Axular Herriko Tabernako pasta tailerrean izena emoteko epea (4 euro). Axular Herriko Tabernan.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

Dorsalak amaitu arte, maiatzaren 30ean jokatu dan Ubidestroil Trail 2026an izen-emotea zabalik kronoak.com webgunean.

Zezeilaren 19ra arte, Ubideko Frontenis Txapelketan izen-emotea 640 588 049 telefonoan edo herriko tabernetan.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

Martiaren 14an egingo dan Aguraingo Araia sagardotegira joateko izen-emotea autobusa bete arte 699 723 606 telefonoan. Joko Alaiko bazkideek 50 euro, besteek 65 euro.

ZEBERIO

Liburutegia zabalik. Astelehen, eguen eta barikuetan 16:30etik 19:30era,

martitzenetan 16:30etik 18:00etara eta eguaztenetan 17:00etatik 20:00etara.

Hilaren 22an izango dan GR38, Lagran-Pariza (13 km) urtekeran izena emoteko epea zabalik hilaren 19ra arte, austarrimenditaldea@gmail.com helbidean edo 665 735 054 eta 656 415 597 telefonoetan.

ZEZEILAK 18
LEMOA


19:30etik 21:00etara, Baqueira Beret-era zezeilaren 27tik martiaren 1era eskietan joateko urtekerarako eta zezeilaren 22ko Ondarroa-Ispaster urtekerarako izen-emotea. Ganzabalen lokalean.

BEDIA

Apirilaren 17ra arte, Jaietako Kartel Lehiaketarako proposamenak aurkeztuteko aukerea. Informazino gunean.

ZEZEILAK 19
AREATZA

19:00etan, Korrika batzordea. Udaletxeko Pleno Aretoan.



Gazteentzako antzerki saboreko bakarrizketea Kotxepinen

Zezeilaren 21ean, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean AED euskera alkaterearen hirugarren bakarrizketea egingo da 20:00etan, *Ni eta ni-tarrak*. AEDren *Buah txabal!* eta *Erdaldun berrien kluba* bakarrizketak moduan, hau ez da *stand up* formatuko saioa, izan be, antzerkiko osogaiak be badaukaz. Egileek dinoe, helduentzako aproposa bada be, hamabost urtetik aurrerako gazteek hurbilago sentiduko dabela kontakizuna. Testua Maria Osesek idatzitakoa da eta Iholdi Beristain aktoreak atzeztuten dau taula gainean. "Maria Isabel naz ni eta dramak kontatzera nator; beti be, umoretik. Izan be, umorea tresna oso potentea irudituten jata gura doguna esateko. Ez dodaz gauza arraroak edo ezohikoak kontetan, egunerokotasuneko kontuak baizik. Umoretik eta mediokridadearen apologia garbia eginaz", dino Beristainek.

ZEZEILAK 20
AREATZA

19:00etan, EAJk antolatutako *Beer & Talk: Gazteria eta emantzipazioa* Adrian Lopez Eusko Jaurlaritzako gazteria eta emantzipazino zuzendaria.

ARTEA

19:00etan, Irakurleen Txokoa: Miren Agur Meaberen *Amorante frantsesa* (Alaine Agirrek bideratuta). Kultur Etxean.

19:00etan, K.A.L. eta Foterie taldeen kontzertuak. Herriko Bentan.

BEDIA

Belaunaldien Arteko Denbora Bankua. 17:30ean, euskal jantza saioa eta mokautxoa; izen-emotea 688 766 302 telefonoan. Ludotekan. 16 urtetik aurrerakoentzat.

DIMA

Bariku txiki. 18:00etan, Antxo eta Pantxaren *Lurrazpitik* antzezlan.

Ama Hizkuntzen Eguna. 19:30ean, herriko atzeritarren hizkuntzak entzuteko ekitaldia eta meriendea. Eskolako kamanan.

IGORRE

Dantza Lehiaketeta. Gaztelekuan.

UBIDE

18:00etan, Hirugarren Adinekoen Goikogana Elkartearen Asanblada Orokorra. Jubiladuen lokalean.

ZEBERIO

18:30ean, Andrea Momoitioren berbaldia, frankismo eta trantsizinoko andren errepresinorako instituzino eta legeen inguruan. Plazako Ermita Zaharrean.

ZEZEILAK 21
BEDIA

17:30ean, Eleizalde Jubilatu eta Pentsiodunen Elkartearen Batzar Orokorra.

IGORRE

Gaztelekuko Podcast-a. Gaztelekuan.

11:00etan, Txaramelaren pasta tailerra. Axular Herriko Tabernan.

20:00etan, Gilkitxaro konpainiaren *Identitarreak* antzezlan. Lasarte Aretoan.

ZEZEILAK 22
IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Oilaskoerbi eta marmotaren sekretua*; 19:30ean, *Aida y vuelta*.

Briska Txapelketeta. Gaztelekuan.

LEMOA

08:00retan, Igorren; 08:10ean, Lemoan. Ganzabal Mendi Taldearen urtekerea. GR 123 (Bizkaiko Bira) Ondarroa-Ispaster.

ZEBERIO

GR38, Lagran-Pariza (13 km) urtekerea, ardaoaren eta arrainaren ibilbidea. 08:00retan, Zeberioko plazatik.

ZEZEILAK 23
BEDIA

17:30ean, Amaia Egidazuren Liburu-maleta ibiltaria. Ludotekan.

ZEZEILAK 24
AREATZA

19:00etan, Jai Batzordea. Udaletxean.

BEDIA

17:30ean, *Mundu bat motxilan*, Alex Txikonen *meditazioak* liburuaren

aurkezpena. Eskolan.

ZEZEILAK 25
LEMOA

18:30ean, Leire Catalaren *Printze giltzapetua* ipuin kontaketea. Kotxepin Kultur Etxean.

ZEZEILAK 27
IGORRE

Jolas librea. Gaztelekuan.

LEMOA

18:30ean, Anodino Teatroren *Mamuak ezagutzera joan zen umea* txotxongilo ikuskizuna.

UBIDE

Podologia zerbitzua. Izen-emotea udaletxean.

ZEBERIO

Gazteentzako kandelak egiteko tailerra. Plazako Ermita Zaharrean.

ZEZEILAK 28
AREATZA

Zuhaitz Eguna. 10:00etan, eleiza aurrean alkartu Makalara joateko zugatzak landatutera. Ostean, hamaiketakoa.

14:30ean, Harrera etxean, Munduko janariak eta solasaldia Harrera etxea eta Berriztu zentroagaz. Laminetxe Gazteteraen Erdibidean ekimeneko bigarren atala.

IGORRE

16:30ean eta 18:30ean, Porrotx, Marimotots, Pupu eta Loreren *Zeru lapurtu dute!* ikuskizuna. Lasarte Aretoan.

Pelikula proiektzinoa. Gaztelekuan.

Olzinelles Absolució Elkartasun Jaialdia. 18:30ean, etxebizitza sindikatuen mahai-ingurua Axular Herriko Tabernan; 21:30ean, TOC, Borla eta beste talde baten kontzertuak eta DJ Matxinada Kiñu Gaztetxean.

MARTIAK 1
ARTEA

13:30ean, Amaia eta Haizearen kontzertua *Amorrua eta samurtasuna*. Herriko Bentan.



19:00etan, Jai Batzordearen batzarra. Kultur Etxean.

IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Zootropolis 2*; 19:30ean, *Marty Supreme*.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

AUTOA KONPARTIDUTEA

Leioako campusera doazen Arratiako EHUko ikasleen bila nabil kotxea eta gastuak konpartiduteko. Telefonoa 690 307 910.

KIMIKAKO KLASEAK HARTU GURA DODAZ

Bigarren Batxilergoko kimika klaseak euskeraz jasoteko nonoren bila nabil abuztuaren hasieratik, ordutegi malguagaz, gero, klaseak urte osoan zehar izateko asmoz zapatuetan ordu biz. Deitu: 638 889 851.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rock School. Gitarra klaseak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu 664 303 528 telefonora edo idatzi a.harillo.gracia@gmail.com helbidera.

TABERNARI EUSKALDUNEN BILA
Axular Herriko Tabernan tabernari bi behar dira astegoienetarako. Interesdunek tabernan bertan galdetu, axularke@gmail.com helbidera idatzi edo telefonoz deitu: 94 673 70 92.

BIZIKLETEA SALGAI

Umeentzat, koloretsua, Dora Esploratzailearen marrazkiekaz. Lauzpabost urteko umearentzat. Errobera txikerrak, aurrean zestillea eta atzean pelutxearentzat kutxa. Egoera eta itxura onean. Eskatu edo ikusteko deitu: 670 825 753.

LESBIANA EDO LESBIANAGAIEN BILA

60 urtetik gorako lesbiana eta lesbianagai bila. Edadeko andrea zara eta aisialdirako edota militantziarako espazio ez-hetero baten bila zabiz? Deitu edo bialdu mezua 608 062 592 zenbakira.

GARAJE-PLAZEA ALOKAIRUAN
Kotxeak sartzeko garaje-plazea alokatzen da Zeanuriko plazan, Ibarreta auzoan. Interesdunek deitu edo idatzi 634 448 820 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat beginu@beginu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:


1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Identitateak antzezlanerako.

Jose Felix Perez (Igorre)
Maite Artabe (Areatza)



2 Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera Ni eta nitarrak bakarrizketarako.

Lorea Igartua (Zeanuri)
Iñigo Atutxa (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. **BEGITUk 23** urte eta ehundaka lagun.



94 673 90 13/649 979 115 | www.beginu.eus | beginu@beginu.eus



Ipini zure iragarkia Begitun 649 979 115 inigoirua@beginu.eus



BEGITU



IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazinoa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus

BEGITU

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2026AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2026an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina dauka martxan Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkartek, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 40€ ☐ 60€ ☐ 80€

begitu.eus



Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.